

artikulu nabarmenak  
artículos destacados

2012



Gazteen  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Juventud

ekaina



**San Martín Alonso, Ángel (coord.) Los jóvenes toman la cámara.**

Ikasgeletan ikus-entzunezko baliabideak erabiltzeko hainbat ikuspegi buruzko artikuluak biltzen dira dossier honetan: "Irudien zazpi bizitzak ikasgeletan"; "Psikopatak institutuan"; "Gazteek bere burua imajinatzen dutenean Interneten"; "Ikus-entzunezko sektorea eta ikaskomunikazioa"; "Irudiekin narratzen ikasten Lehen Hezkuntzan"; "Isilik, filmatzen ari gara!"; "Ikus-entzunezko alfabetizazioa ikasgelan"; "Ezintasuna duen ikasleriarentzako adierazpen baliabidea"; "Familiek pantaila zeharkatzen dutenean"; "Kameraren atzean" eta "Gehiago jakiteko".

[Cuadernos de pedagogía](#), 424. zk., 2012ko ekaina, 46-81. or.



**Ausín Andrés, Eva. Empleabilidad del universitario: orientación del aprendizaje basado en competencias.**

Unibertsitate-ikasleen laneratze-tasa onak bermatzea da, gero eta gehiago, unibertsitate-heziketaren eraginkortasuna neurtzeko irizpide garrantzitsuenetariko bat. Eztabaida horrek unibertsitate-ikasleen etorkizun profesionalari buruz gogoeta egitea eskatzen du. Hiru arlotan gauzatu behar da eztabaida hori: hezkuntzaren arloan, enpleguaren arloan eta norberaren baitan, diziplina arteko eta nazioarteko ikuspuntuak aplikatuta, beti ere. Horrela, hiru mugarri aztertu dira unibertsitate-ikaslearen enplegarritasunari dagokionez: ikasketak eta unibertsitatea aukeratzeko unea, ikasketa-ibilbidea bera, eta laneratze prozesua. Erronkarik handiena gaitasunak ezagutu, horiei buruzko gogoeta egin eta aplikatzean datza, bai eta unibertsitate-ikasleak beren enplegarritasuraren jakitean ere.

[Inguruak](#), 50. zk., 2011ko abendua, 51-60. or.



**Political and civil engagement development in adolescence.**

Nerabeen partaidetza zibil eta politikoari buruzko 13 artikulu biltzen ditu dossier honek. Besteak beste, honako gai hauek lantzen dira: familiak partaidetzan duen eragina, konpromiso zibiko eta politikoarekiko jarrerak nerabezaroon, komunikabideen eragina herritarren parte-hartzean, "gizarte-erantzukizuna" delakoaren balioa, boluntario-lana edo generoen arteko aldeak, parte-hartzeari dagokionez.

[Journal of adolescence](#), 35. lib., 3. zk., 2012ko ekaina, 471-627. or.



**Santos Ortega, Juan Antonio; Martín Martín, Paz. La juventud española en tiempos de crisis. Paro, vidas precarias y acción colectiva**

Krisiaren eraginez, gazteek helduarorako trantsizioan egun dituzten zailtasunen balantzea egiten da artikulu honetan. 2007tik hona, prozesuok okerrera egin dute aurreko egoerarekin alderatuta, jada zaila zena. Langabezia, ordainsari apalak eta hipoteka-kredituaren dinamikak direla-eta, etorkizun are ezegonkorragoan murgiltzen ari dira gazteak. Egoera are gehiago larritzen da, gizarte-babeserako berariazko politiken mugen ondorioz. Aterdi baten guztien erakusgarri, lan-merkatuari eta bizi-baldintzei buruzko estatistika-iturri nagusien datuak erabiltzen dira.

[Sociología del trabajo](#), 75. zk., 2012ko udaberria, 93-110. or.